



**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza

**Asteartea  
2009-11-10**

VIIURTEA 1.823.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)



120 lagun inguru izan ziren herenegun lerabizkar Behekoa errotaren inaugurazioan; 3 txanda egin zituzten. SARA GOMEZ

## USTE BAINO HARRERA BEROAGOA EGIN DIOTE ERROTA BERRITUARI

**TOLOSALDEA** Euria egin arren, jende ugari hartu du parte kultur asteetako ekitaldietan; datozen egunetan ekintza gehiago izango dira 7

## Gazteenak irabazi du beterranoen arteko apustua

**TOLOSA** Donato Larretxeak lau minutu eta erdi atera zizkion Miel Mindegari 4

**Iñaki Odriozola**  
'Mokolo'  
pailazoa hil da  
bihotzekoak  
eman ondoren

**ANOETA** 30 urte zituen;  
'Poxpolo'-rekin osatzen  
zuen bikote artistikoa 6

## Arbillaga eta Jauregi, eskualdeko azkarrenak

**TOLOSALDEA** Eskualdeko 443 lagunek amaitu zuten herenegun Behobia-Donostia lasterketa 2-3



Atxulondo kultur etxean izan ziren atzo erakusketako inauguratzen. E.MAIZ

## Ikusgaitasunera igarotzeko erakusketa zabalik

**ZIZURKIL** Atzo inauguratu zuten 'Emakume eta gizon homosexualak historian zehar' erakusketa 5

## Elkarretaratzera deitu du AHT Gelditu! Elkarlanak

**TOLOSA** Bihar izango da udaletxearen aurrean, «lur desjabetze akten sinadurak salatzeko» 4







Ezkerrean Mindegia eta eskuinean Larretxea, herenegun Tolosako zezen-plazan. SARA GOMEZ

## Beteranoen arteko lehia gazteenak irabazi du, lau minutu eta erdiko aldearekin

**Kirolak** » Herenegungo apustuaren ostean, Joxe Mari Mendizabal Adunako aizkolariak desafioa bota zuen.

### ERREDAKZIOA

Miel Mindegiaren eta Donato Larretxearen arteko apustua Larretxearen alde erabaki zen, herenegun Tolosako zezen-plazan. Gazteenak irabazi zuen, beraz, bi beteranoen arteko lehia. Lau minutu eta erdiko aldearekin gailendu zuen Larretxea.

Ez zen giro herenegun Tolosan, ia Euskal Herri osoan bezala, euriak ez baitzuen etenik izan egun osoan. Dena den, zezen-plazara gerturatu ziren 1.500 ikusleak apustu gosez ziren. Izan ere, ikusluzin paregabea zuten zain: Min-

degiak eramandako 60 ontzako 20 enbor ebakitzen aizkolariak lanean ikustea.

Alde bakoitzak 12.000 euro jarrita zituen jokoan. Dirua, berriz, Larretxearen alde atera zen lehendabizi, baina saioan zehar aldatu egin zen, bata zein bestearen alde.

### Enbor gogorrak

Saioa hasi aurretik Mindegia berek esana zuen egur gogorra erango zuela, eta horrela izan zen. Horrek nolabaiteko abantaia emango zion. Baina ez zen horrela izan, eta lehen enborretik azkenekora arte Larretxea izan zen jaun eta jabe.

Aldeetako bat kolpean egon zen, izan ere, erabakigarria izan zen Larretxearen kolpea, Mindegiarena baino askoz eresendoagoa. Lanerdian zirela Mindegia nahiko gertu izan zuen Larretxeak, bi minutuko

aldearekin. Baina, hortik aurrera eta proba amaitu zen arte garaipena Larretxearen eskuetan egon zen. 81 minutu eta 34 segundotan egin zuen bere lana. Mindegia, berriz, 85 minutu eta 59 segundo behar izan zituen.

### Mendizabalen desafioa

Ikusmin handia piztu duen apustuaren ostean, desafioak ere bota zituztenak izan ziren herenegun. Joxe Mari Mendizabal adunarrak bi 80 ontzako etzanda eta bi kanako zutik jarrita mozteko prest zegoela adierazi zuen.

Mindegia bi minutuko alde eskatzen dio proba horretan, eta gainerakoei urte bakoitzeko minutu erdiko alde. 62 urteko aizkolariak abenduaren 5a jarri du apustua adosteko egun bezala. Egun horretan izango dela Kantabriko tabernan zain esan du.

## 3-0 gailendu da Tolosa Ondarroako Aurrera taldearen aurka

### ERREDAKZIOA

Lurraldeko Ohorezko mailako sailkapenean 11. postuan dago Tolosako taldea bederatzigarren jardumaldia igaro ondoren. Hiru puntu garrantzitsu lortu zituen herenegun Berazubiko zelaian jokaturiko partidaren. Puntu garrantzitsuak, izan ere, sailkapenean lehen postuan dagoen Ondarroako Aurrera zuten aurkari tolosarrek.

Bigarren minutuan sartu zuen Uribe gola Tolosarentzat, eta hori izan zen partida euren alde jartzeko

go puntuetako bat. Bigarren gola ere lehen zatian sartu zuen. 25. minutuan izan zen, eta kasu honekin, Valor jokalaria izan zen baloia sareetan jarri zuena. Aurrera saiatu zen partidari buelta ematen, baina ahaleginean geratu zen. Gainera, Tolosakoak hirugarren gola bat egiteko gai izan ziren; 90. minutuan izan zen, Colomboren eskuetik.

Hurrengo partida Berio taldearen aurka izango dute tolosarrek. Hauek 10. postuan daude.

## AHT Gelditu Elkarlanak elkarretaratzera deitu ditu bihar herritarrek

### ERREDAKZIOA

Tolosaldeko AHT Gelditu Elkarlanak deituta, bihar elkarretaratzea egingo dute Tolosako udalderetxearen aurrean, «bihar bertan Tolosan lur desjabetze akten sinadurei ekingo dietela salatzeko». Elkarretaratzea 10:30ean izango da.

Elkarlanak adierazi bezala, «sinaketa horiek AHTren obrak hastea ahalbidetuko dute, eta Espainiako Sustapen Ministerioak trenbide zati honen hasiera emateko pausu berri bat emango du».

Tolosan ezezik, Legorretan ere bihar sinatuko dituzte aktak, eta etzi egingo dute Itsasondon. Elkarlanaren arabera, «Tolosako aktak Aldaba Txiki auzoan eraikiko den hondakindegia dute helburu. Horixe izan da etengabe gainditzen saiatu garena, zuhaitzetara igoz, manifestazioak eta mendi-martxak antolatuz...»

Hala, elkarretaratzera deitzen dute, «akten sinadura salatzeko, proiektu honek demokraziaren arau guztiak deusezten baititu».

## Emakumeen eta komikien inguruko hitzaldia izango da gaur

### ERREDAKZIOA

Tolosaldeko Garatzeneko Immigrazio sailak antolatuta, Emakumeak eta Komikiak Munduan Ze-

har. Skolastika hitzaldia izango da gaur, Kultur Etxean, 18:00etan, Josune Muñozen eskutik.

Munduan zehar komikiak duen presentzia aztertuko du, eta emakumeak bertan nola isladatzen diren ikusiko dute. Informazio teorikoa nahiz praktikoa emango dute, batez ere, Ekialde Hurbilean, Asian eta Afrikan oinarrituta.

Hiru puntu hartzen dituzte kontuan euren azterketak egitekoan: Begirada, hau da, komikiak emakumearenganako duen sentsibiltate; istorioa edo kontatzen dena, mendebaldeko ez diren edo etorkinak diren emakumeek istorio desberdinak badituztela kontatzeko hausnarketa eginaraziz; trazuza, hau da, istorio hauek zein marrazkirekin laguntzen dituzten.

Hitzaldiaz gain, gaiaren inguruko solasaldia egin nahi dute.

## Iragarki laburrak

### LANA

■ **Zerbitzaria.** Tolosako enpresa batek zerbitzaria behar du, aste-buruetan eta jai egunetan lan egiteko. Emakumea eta eskarmentuduna. 661 46 3193.

### GALDUTAKOAK

■ **Giltza.** Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza egunkariaren egoitzan Iveco B365 erreferentzia duen giltza bat azaldu da. Galdu duenak dei dezala 943 65 56 95 telefono zenbakira.

**SOLAGÜEN 2004.** urteko  
ERRESERBAko ardoa



6 botilako kutxa  
60 €

12 botilako kutxa  
72 €

**SOLAGÜEN 2005.** urteko  
ardo ONDUA

**REMELLURI 2005.** urteko  
ERRESERBAko ardoa



3 botilako kutxa  
40 €

6 botilako kutxa  
80 €

**BRUT NATURE  
MAINEGRA**

MENDIBIAKO CAVA  
MAHATS MATAXE, %50 vitura, %25  
parellada, %25 chardonnay.  
LEGITIM ONDUA:  
Hogei hilete baino gehiago.  
Auzoaren ONDUA:  
Bolumenaren %10, gutxi gorabehera.



6 botilako kutxa  
39 €

Erosi **berriaren** plazan

EUSKAL HERRIKO PRODUKTUAK

azaroren 30a arte

943-30 43 45

www.berria.info

harpidetza@berria.info

Bidalketa gastuak doan



saskia!



Alfar  
La Maja

6 botilako kutxa  
36 €



## Alcinas eta Martinez garaile, dardoekin

**TOLOSA** ■ Asteburuan mundu osoko 56 partaide aritu ziren Beotibarren bigarren goaldia. Dardoen Txapelketan lehia. Bi sistemetako dianak zituzten makinetan aritu ziren; sistema elektronikokoak eta ohiko diana zutenak. Bietan ere Mallorcako Antonio Alcinas izan zen garaile. Nesketan berriz, Valentziako Mila Martinez. Ramon Moneo antolatzaileak esanda-koaren arabera, asmoa «dardoen munduan diharduten eragile guztiak elkartzeara» izan da beti. Udala nahiz antolatzaileak gustura agertu dira erantzunarekin. R. CALVO



## «Ikusezintasunetik, ikusgaitasunera»

**ZIZURKIL** ■ Atzo inauguratu zen *Emakume eta gizon homosexualak historian* izeneko erakusketak. Atxulondo kultur etxean ikusgai egongo da hau hamabost egunez. Astelehenerdik ostiralera 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara egongo da zabalik. Guztira 31 panelak osatzen dute bilduma, eta hauetan, ospetsuak izan diren pertsoniak agertzen dira, baina denek dute komunean euren homosexualitatea. Erakusketari ibiltari honekin, Gehitukoek pertsonaia hauen homosexualitatea, ikusezintasunetik ikusgaitasunera pasa nahi dute. E.M.

# Finalera iristeko aukera ugari ditu Mendiluzek

### ERREDAKZIOA

Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala gero eta gertuago da, eta oraingoz aukera ugari ditu Aitor Mendiluzek bertsolariak BECeko saiora iristeko. Asteburu honetan lehendabiziko bi finalurrekoak jokatu dira, bata Bergaran, eta bestea Gasteizen. Orain arteko emaitzen arabera, Maialen Lujanbiok

ditu puntu gehien, 708,5. Saillapean, bigarren Aitor Mendiluzek 680rekin. Hirugarren, Gasteizko irabazlea dago, Miren Amuriza, 655,5 punturekin. Honenbestez, hiru hauek zuzira dute hurrengo faserako saillapena.

Asteburuan beste bi finalurreko izango dira. Larunbatean, Tolosan, eta igandean, Hendaian.

### Finalerako txartelak salgai

Finalerako txartelak, Interneten ez ezik, zenbait tabernetan ere eskura daitezke. Eskualdean, Ikaztegiatoko Toki Alain, Alegiako Jubilatuetan, Tolosako Kantabrikan eta Villabonako Amasa kafetegian. Tolosako finalurrekorako txartelak soilik leihatilatan lortu ahal dira Internetez agortu egin baitira.

## Eginda



### » Iritzia

#### Felix Irazustabarrena

**O**stiraleko, beraz bezperako HITZAn irakurri nion Mendiluzeri «Finean egin behar dena hiru hitzetan laburbiltzen da, joan eta egin». Irakurri esan dut, baina ia ia entzun egiten nuen Aitor hori esaten, eta esango zuten tonuan. Esaldia kolpezik bukatuz. Kitto.

Oso garbi dauka zein den bere egitekoa. Egitea alegia. Eta Bergarara joan eta egin egin zuen. Ondo, bertsoan berea duen moduan, bertsoa kargatuz, behartu gabeko esaldiek eta hitz egokiak aukeratu.

Eta bertsoaldi guztietan egin zuen. Neurri eta estilo desberdinetan, ofizioak lagunekin osatuz eta gaiean aurrera eginez, puntuei bikain erantzunez (galdetzean errazak zirela erantzun zidan) eta ba-

karkako lanean oso ondo, teknikoki bikain, behar bada bihotz pixka bat gehiago jarri izan balio perfektu. Eta agurretan, ez bada puntuatzen ere, doinu eta metrika berria. Zeinek eskatzen du gehiago? Nik. Eta bertsozale gehienek ere. Hurrengo eguiten badu, BECen berriro.

Egiteko ordea, faktore asko egokitu behar dira eta Bergaran eman ziren. Giroa, lekua, bertsoaldiek... Lagun oso onak tokatu zitzaizkion berak nahi zuenerako. Saioan zehar oso ondo ibili ziren Martin eta Gaztelumendi handian eta seiko motzean eta gehien orduan asmatu zuten Lekue zortziko txikian. Bakarkakoan Lujanbioren bertsoaldi aparta ez balitz etorri berearen ostean, Aitorren naufragaren doinuek hitz egingo genuen gaur.

Bertso asko bota zituen onak baina beste inon irakurri ez dudanez Mainontzi doinuan kantatutakoa ekarriko dut. Gaztelumendirekin zen eta gaiaren arabera, bikotea ziren. Beñat lanetik erretiratu denetik, elkarbizitza asko korapilatu zaien bikotea. Mendiluzeren lehen bertsoa honela zen: Gogoia nola mantendu / neke bada gailendu? / Igual aparte geunden artean / gertu geunden gu. / Lehen bazina ta bazendu / zure falta nabarmendu /

orain denbora eman didazu / ta arnasa kendu. (bis). Bi arrazoi indartsu bertso berean edo bi bertso batean. Egin zuenaren seinale.

Mendiluzek horretan jartzen du bere helburua, egin dezakenean. Ondorioz etorriko dira puntuak eta saillapenak eta bere ustez hori egiten badu, berea eman alegia, BECen egoteko aukera izango luke.

Erabat ados nago. Bergaran bigarren geratu zen bikain aritu zen Lujanbioren atzetik. Ez dago dena eginda, baina finalerako lehen pausoa eman du, oraindik ez daki bigarrena non eman beharko duen. Berdin da, joan eta egin. Eskerririk asko.

# Bide Bide Ibizaren garaipen garrantzitsua

**Tolosa** ■ Durangoko Tabirako Baque izan zuten aurkari larunbatean; 59-61eko emaitzarekin irabazi zuten tolosarrekin.

### ERREDAKZIOA

Tabirako Baqueren aurkako hilala biziko partidaren 59-61ko markagailuarekin garaipena ekarri zuten Tolosara, Bide Bide Ibizakoek.

Bizkaitarrak moralez gainezka zeuden aurreko astean Baskoniari irabazi ostean eta garaipen horri indarra eman nahi zioten etxean indartsu eginez. Behingoz bolada txarra alde batera uzteko intenzioarekin kantxaratu zen taldea eta hasiera zoragarri batean 0-9ko partziala eskuratu zuten etxekoan entrenatzaileari hutsartea eskatzera behartuz. Baina oasi batean bezala, irudi hori hutsartea eta gero joan zen 11-0ko partziala jasotzen. Partidaberdindua izango zena- ren adierazle.

Bigarren laurdenak ere berdintasun norabidea jarraitu zuen. Tolosarrekin alde egiteko aukerak izan

zituzten baina Aza eta Mikel Txiki jaso zituzten teknikak Tabirako berriro ere partidaren sartu zuten. Atsedendira 31-32ko emaitzarekin iritsi ziren.

Atsedendia ondoan Ionen lanak taldea markagailuan aurrerik ezarri zuten. Bere lana 20 puntu eta 8 erreboterekin erabakiorra izan zen Bide Bidek garaipena eskuratzeko.

Laugarren laurdena gauzak erabaki gabe iritsi ziren oraindik. Taldeak defentsako lan ona egin beharra zuela argi zeukan garaipena lortu ahal izateko eta Goarren zazpi lapurretek garrantzia handia izan zuten horretan. Azken minutuetara kanpotarrak aurretik iritsi ziren, azken minutura 5 puntuko errentarekin. Etxekoan jaurtiketa libre portzentai eskasak ez zuten inongo momentuan tolosarrekin garaipena arriskuan jarri eta Bide Bidek garaipen garrantzitsua lortu zuen.

Aste honetan Padura izango dute Tolosakoek aurkari. Norgehiagoka Usabalgo beheko kantxan jokatu da 18:00etatik aurrera.

## Pirritx, Porrotx eta MariMotots

IRRIEN LAGUNAK CDA

16 €



Euskal pirata bihurriak gara; zatoz gurekin irriki abordatzera!

Noiz eta nola egin eskaria?

Azaroaren 30 arte:

• 902-82 02 01

• harpidetza@hitza.info

Bidalketa gastuak daude



PIRATAK  
DVDa  
18 €

hitza



Aurreko urteetan, Anoeta eta Asteasun egindako kirol eta mendi asteetako irudiak dira. ESTI EZEIZA

## Anoetan eta Asteasun Kirol eta Mendi Astean murgilduko dira

**Kirola** » Asteazkenetik igandera bitarte ekitaldiz beteriko egitaraua izango dute; adin guztiek parte hartzeko aukera dute.

### ENERITZ MAIZ

Asteazkenetik aurrera, Anoetako Kirol Astea eta Asteasun Mendi Astea izango dute. Anoetan, Udalak eta Asteasun, Sagain mendi taldeak antolatuko dira. Asteazkenetik igandera bitarte, kirolari lotutako ekintza ezberdinak egingo dituzte bai herri batean zein bestean.

### Anoetako kirol astea

Asteazkenetik hasiko dute Kirol Astea eta 19:00etan diaporama emanaldia izango dute. Koloradoko Arroila Handia piraguan ikuszeko aukera izango da udal aretoan. Era berean, asteazken arratsaldean, argazki lehiaketan parte hartu duten 21 argazkiak jarriko dituzte kiroldegian eta aste osoan ikusgai egingo dira. Hortik, 8 argazki sarritu dituzte eta 2010eko egutegian aterako dira. Ostegunetik 19:00etan Marimendi elkartean diaporama izango da udal aretoan. Kasu honetan, Kaukasoko Elbrus (5642 m.) mendira igoera ikusi ahal izango da.

Ostiralean, Pilota Txapelketa egingo dute. Bertan parte hartzeko, asteazken bitarte izena emateko aukera dago udaletxean, kiroldegian edota ikastolan. Irekia da eta mailaka banatuko dituzte parte hartzaileak.

Larunbatean, BTT irteera egingo dute 10:00etan plazaatik aterata. 18 kilometroko ibilbidea egingo dute: plazaatik atera eta Bentalde, Hernialde, Alkiza, Basagain eta Anoetara buelta egingo dute. Kasu eramatea derrigorrezkoa izango da. 15:30ean Errota Poligonoan, arraun ikastaroa egingo dute. Eta Kirol Astea bukatzeko igandean, 11:00etatik aurrera kiroldegian ginkana familiarra egingo dute.

### » KIROL ETA MENDI ASTEAK

#### Anoetako kirol astea

- **Azaroak 11.** Koloradoko Arroila Handia Piraguan diaporama, 19:00etan udal areto nagusian.
- **Azaroak 12.** Kaukasoko Elbrus mendira igoera diaporama, 19:00etan udal areto nagusian.
- **Azaroaren 13.** Pilota txapelketa, 17:30-19:00 eta 19:00-20:30.
- **Azaroaren 14.** 10:00etan plazaatik, 18 kilometroko BTT irteera.
- **Azaroaren 15.** 11:00etan, Ginkana familiarra kiroldegian.

#### Asteasun Mendi Astea

Sagain Mendi Taldeak, Asteasun Udala eta Aralar Kirolak laguntzarekin antolatuko du aurtengo Mendi Astea. Asteazkenetik hasiko dute Fidel Mendiaren, Pirineoak 08/09 *Una supertemporada con 8 meses de ski* proiektioarekin. Udal aretoan izango da 20:00etatik aurrera. Ostiralean, Juanito Oiarzabalen proiektioa eskainiko dute 20:00etan udaletxean.

Larunbatean, Orientazio proba egingo dute eta adin eta maila guztientzat aproposa izango da. Kiroldegian 10:00etan elkartuko dira. Arratsaldean berri, frontoian 16:30etik aurrera, haur eta gazteei zuzendutako eskalada txapelketa izango da.

Igandean, mendi irteera eta bazkaria izango dituzte animatzen direnek. Otsabi, Belabieta, Loatzo eta Alustiza igaroko dituzte. 09:00etan abiatuko dira eta ibilbide erraza prestatu dute, lau orduko egiteko modukoa da. Alustizan, bazkaria egingo dute eta horretarako kiroldegian apuntatu beharko da. Azken eguna ostegunetik izango da.

Azkenik GPS ikastaroa antolatu dute hilaren 23, 25, 27 eta 29rako. 10 plaza daude eta izena Mendi Astearen zehar edota [gps@sagain.org](mailto:gps@sagain.org) eman daiteke. 20 euro ordaindu beharko dira. Hiru egunetan teoria (bi ordu eguneko) eta egun bat mendian pasako dute. Beraz, bada aukera ikusi eta ikasteko.

■ **Argazki lehiaketa.** Parte hartu duten 21 argazkiak, asteazken arratsaldetik aurrera 9:00etatik 12:30era eta 15:00etatik 21:30era ikusgai egingo dira.

■ **Azaroak 14.** Orientazio proba 10:00etan kiroldegi aurrean. Eskalada txapelketa, 16:30ean frontoian.

■ **Azaroak 15.** Mendi irteera eta bazkaria. Irteera 09:00etan, Otsabi, Belabieta, Loatzo eta Alustizara egingo dute eta ondoren bazkaria.

■ **Azaroak 23, 25, 27 eta 29.** GPS ikastaroa. Hiru egunetan teoria eta bat mendian.

## Iñaki Odriozola 'Mokolo' pailazoa zendu da bihotzekoak jota

**Anoeta** » 30 urte zituen anoetarrek; 'Poxpolo'-rekin osatzen zuten bikote artistikoa.

### ERREDAKZIOA

Iñaki Odriozola gaztea hil da ezustean iragan asteburuan, bihotzekoak jota. Anoetarrek 30 urte pasatxo zituen.

Haurren artean, Iñaki Odriozola 'Mokolo' pailazoa bezala zen ezaguna. Iker Galartza 'Poxpolo' pailazoarekin osatzen zuten bikote artistikoa. Beste taldekidea berri, Joseba Usabiaga da. Larunbatean, Ataunen aritzekoak ziren eta ez da egun asko, Altzoko haurren gozamerako Alizon izan ziren.

## Irurako Udalak Wifi zerbitzua jarri du, oraingoz herriko bi gunetan

**Irura** » San Migel plaza eta Kultur Etxe inguruan jarri dute. Liburutegian edota udaletxean pasahitza lortu beharko da.

### ERREDAKZIOA

Irurako Udalak Wifi zerbitzua eskaintzen du herriko hainbat lekutan. Oraingoz, San Migel plaza eta Kultur Etxe inguruan, hau da, Pello Arrese kalean.

Doako zerbitzua izango da eta edozein ordu eta egunetan erabili ahal izango da. Baldintza bakarra, erabiltzaileek pasahitza lortu beharko dutela da. Horretarako, astelehenetik ostegunera arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara liburutegian eskatu beharko da. Bestela, udaletxeko 943 691333 telefono zenbakira deitu eta pasahitza prest dagoen emango da erantzuna.

## Hilberria

### ROSARIO OLABEZELA AZKARATE-ASKASUA

(Antonio Muruaren alarguna)  
98 urte zituela hil zen

Eskerrik asko amona maitea erakutsi diguzun guztiagaitik.

Baita ere gurekin izan duzun pazientziagaitik. Muxu handi bat, zeruan zurekin ikusi arte!



ZARAUTZ  
2009ko azararen 10a

Bilobak: Juan Antonio, Nerea, Jaione, Ane, Jose Luis, Josune, Itziar, Jon, Haritz eta Eider

Oharra: gaur, asteartea, 12:00etan hilerrian lurperatuko dute, familiak eta sendideek intimitatean. Hileta parrokian izango da, gorpurik gabe, 19:00etan.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • [tolosaldean@tolosaldekohitza.info](mailto:tolosaldean@tolosaldekohitza.info) / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

# Jendeak parte hartuz erantzun dio denboraleari

## ERREDAKZIOA

Eguraldiak ez zuen gehiegi animatzen baina haizeari, euriari eta hotzari aurre eginez, jende ugari hartu zuen parte herenegun, euren herrietan kultur astean harira antolaturiko ekitaldietan.

Datozen egunetan ere, eguraldiarekin gertatzen ari den bezalaxe, ekitaldi zaparrada izango da eskualdean; Berastegin, Ibarren, Ikaztegieta eta Amezketa ospatzen ari baitira kultur asteak.

## Berastegin era askotarikoak

Eguerdian partean barruak berotzeko aukera izan zuten Berastegiko ardo dastaketan parte hartu zutenek. Prexen Urkizuk zuzen zuten saioa. Arratsalde partean jarraitu zuten ekitaldi sortarekin; kasu honetan Xurdinen emanaldia izan zen, eta ume mordoak bildu zen bertan, nahiz eta pilotalekua ez zen bete. Ondoren, abesteko aukera eman zitzaizkien gaztetxoek euskarako bitartez eta indarrak txokolatadarekin berreskuratu zituzten.

Ibarra Gaste Asanbladak ekitaldi xumea egin zuen, talo jatea izan baitzuten. Datozen egunetarako ere ekitaldi interesgarriak antolatu dituzte.

## Amezketan, errota inauguratuta

Amezketako ekitaldi nagusia Ierabizkar Beheko erroren eraberritzea izan zen, herenegun. Jexux Iñurria alkateak berak azaldu duenez, «espero baino jende gehiago bildu zen; 120 lagun inguru izan ziren, eta hiru txanda egin zituzten errota erakusteko eta azalpenak emateko». Hain zuzen ere, Konstan Sagastumek eman zituen azalpenak.

Horretaz gain, irina eta arto irina egiten aritu ziren eta umeek egiteko tailerrarekin «ederki igaro zuten». Zazpitarri zentrala eta energi berritzailearen erakusketa ikusteko aukera ere izan zuten: «Zentrala 600 kw ematen ari zen, herri osoai argia emateko moduan, beraz; halaber, plaka solarraren funtzionamendua eta ere

azaldu zirkuitu bat egin genuen», zehaztu du Iñurriak.

Orain datorren asteko ekitaldiei begira daude. Garrantzitsuenak «Aralarri egingo diogun omenaldia eta azoka berezia» izango dira. Azken honetan, gainera, estreinakoz, herritarren arteko Gazta Lehiaketa egingo dute.

## Ikaztegieta kirola nagusi

Pasa den larunbatean Ikaztegieta pilotalekuan jokatu zuten ezker hormako IV. Emakumea Pilotari Txapelketa-Kutxa Sariko 6. jardunaldia. Bigarren mailako ligaxkak azken jardunaldia izan zen, finalerdiak jokatu dituzte hurrengoan.

Hiru partida izan ziren eta hauek izan ziren emaitzak: Lizeaga-Lucas 30 eta Garmendia-Aizpuru 17; Fernandez-Manzisor 30 eta Pierola-Maddi Mendizabal 15; Bañales-Urbieta 21 eta Pagola-A. Urkizu 30.

Hurrengo ere kirol ekitaldia izango da, igandean, 11:00etatik aurrera herri krosa izango baita.

## » KULTUR ASTEEN EGITARAUAK HERRIZ HERRI

### IBARRA

#### ■ Hilak 10, gaur

19:00. Sexologiari buruzko hitzaldia.

#### ■ Hilak 13, ostirala

19:00. Liburu aurkezpena: *El Filtro*. Jon Mintegiaga ibartarraren eskutik.

22:00. Zinema: *Las trece rosas*.

#### ■ Hilak 14, larunbata

Gauean. Karibear gaua: Mojitoak, musika, karibear giroa,...

### BERASTEGI

#### ■ Hilak 12, osteguna

17:00. Eskolako jangelan Idoia Sanchezen ipuinak.

21:00. Eskolako ganbaren Berastegin hondakinen birziklaketa eta traste zaharren bilketari buruzko hitzaldia eskainiko du Xabier Lekuonak.

#### ■ Hilak 14, larunbata

12:00. Esne eta kontsumorako esnekiei buruz argibide batzuk hitzaldia Ion Aranbururen eskutik.

15:00. Basurde Elkartean Mus Txapelketa azkarra.

16:00. Gazteen I. Duatloia. Ondoren, merienda banatuko dute.

18:00. Elizan Euskal folkloreakin mundurantz Oñatiko ganbara abesbatza, Kutxaren eskutik.

22:30. Eskolako gimnasioan euskal musika emanaldia Ansa ahizpen eskutik.

#### ■ Hilak 15, igandea

Goizean zehar. Herriko produktuak eskuragai: barazkiak, gaztak, eztia, eskulanak... Gazta Txapelketa, II. Ardi-ahari Txapelketa eta III. Animalia Erakusketa ere egingo dituzte. Ekintza guztietako sariak ere banatuko dituzte.

18:00. Talo jatea, goizeko gaztak dastatuaz eta ardo zein sagardoa-rekin bustiaz.

### AMEZKETA

#### ■ Hilak 10, gaur

18:00. *Osteoporosia, nola arindu sintomak* hitzaldia, gela balioanitzean.

20:30. *Erleen mundua* hitzaldia, gela balioanitzean.

#### ■ Hilak 11, bihar

San Martin Eguna.

11:00. Meza San Martinen. Ondoren, bertan, Laja eta Landakanda trikitaliak eta bertsoan Bixente Gorostidi eta Patxi Etxeberria.

13:30. Umeen bazkaria jan-gelan.

14:30. Bazkaria Beartzana jatetxean. Izena jatetxean bertan eman behar da.

16:00. Larrunari pilotalekuan, *Ino Ino badator Bonbardino* haurrentzako antzerkia. Ondoren, txokolatada denentzat.

#### ■ Hilak 12, etzi

20:30. *Ipar gazi hego geza*. Bizikletzia familia giroan bidaiatzeko esperimentzia hurbiletik ikusteko aukera, gela balioanitzean.

#### ■ Hilak 13, ostirala

20:00. Balioanitzeko gelan, ardo kata. Parte-hartze mugatua du.

Bertaratu nahi duenak, izena udaltxean eman behar du.

21:00. Zahagi-ardoa frontoian. Aurrez dastatutako ardoa izango da bertan. Jatekoa nork berea eman behar du. Ondoren, Itzel taldearekin berbena.

#### ■ Hilak 14, larunbata

Enirio-Aralar Mankomunitatearen 600. urteurrena dela eta Aralarri omenaldia:

12:00. Txalapartarekin ongi-etorria agintariei San Martinen.

12:30. Ekitaldi: Guillermo Olmok eginiko Atari eskulturaren inaugurazioa bertsolari eta trikitaliek girotuta.

18:00. Kontzertuak izango dira San Martinen Iker Goenaga eta Ruper Ordorikarekin. Eguraldi txarra eginez gero, Larrunari pilotalekuan.

#### ■ Hilak 15, larunbata

■ 22:30. Feria eta herriko gazta lehiaketa.

### IKAZTEGIETA

#### ■ Hilak 15, igandea

10:30. Herri krosa Herrigintza Elkartean eskutik. Lehenik haurrak eta gero helduak.




Eguraldiak lagundu ez bazuen ere 120 lagun inguru izan ziren erroren inaugurazioan. SARA GOMEZ



Xurdinek eta bere lagunek emanaldia eskaini zuten, herenegun, Berastegin. S. GOMEZ



Azalpenak ere eman zituzten. S. GOMEZ



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



15°  
11°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	17°
HOTZENA	10°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosa@iragarri.net.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aizondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leizaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agurrak



**agurrak**

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leiztan: Udaletxeko bulegoa

agurrak

09 Oiarzungo Eskalada Txapelketa Herrikoia

hitza